

MERKANTZIAK, ERAIKUNTZAKO MATERIALAK, OBRA HONDAKINAK, HESIAK, EUSTOINAK, ASTOTXOAK, ALDAMIOAK ETA ANTZEKO INSTALAZIOAK ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN UTZI ETA OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA.

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz, administrazio batzar honek ordenantzarerit izenburuan aipatzen diren prezio publikoak ezarri eta eskatzen ditu. Tarifak eta horiek aplikatzeko arauak ordenantza honen zati den eranskinean jasotzen dira.

2. ARTIKULUA

Ordenantza hau kontzeju osoan ezarriko da.

ZERGA GAIA

3. ARTIKULUA

Zerga gaia ordenantza honen eranskinean jasotako tarifetan zerrendatutako jabari publikoaren okupazioarengatik ordaindu beharreko prezio publikoan datza. Horrek berekin ekarriko du ordaindu beharra.

SUBJEKTU PASIBOA

4. ARTIKULUA

Baimenen pertsona edo erakunde onuradunak izango dira subjektu pasibo edo, baimenik izan ez arren, aprobetxamenduaren onuradunak.

5. ARTIKULUA

Administrazio publikoek ez dute tasarik ordaindu beharko, baldin eta zuzenean ustiatzen dituzten komunikabide zerbitzu publikoei atxikitako aprobetxamenduak eta heritarren segurtasunaren edo defentsa nazionalaren zuzeneko interesen aprobetxamenduak badira.

ZENBATEKOA

6. ARTIKULUA

Eranskinak jasotako tarifa oinarritzat hartuta ateratakoa izango da prezioaren zenbatekoa, erabilera edo aprobetxamendu bakoitzerako.

SORTZAPENA

7. ARTIKULUA

Ordenantza honetan araututako prezio publikoa nahiaez ordaindu beharra hauexetatik sortzen da:

Bide publikoaren aprobetxamendu berrien emakidak baldin badira, baimena eskatzean.

Dagoeneko baimendutako eta luzatutako aprobetxamenduen emakidak baldin badira, sei hileko bakoitzeko lehenengo egunean.

Honela ordainduko dira prezio publiko horiek:

Aprobetxamendu berrien edo epe jakineko aprobetxamenduen emakidak baldin badira, zuzenean toki diruzaintzan, edo administrazio batzarrak ezartzen duen tokian, beti ere baimena jaso aurretik.

Baimena eskuratu bada eta lanak egiteko eperik ez badago, sei hilabeterik behin ordainduko dira udal gordailuan, prezio publiko hori ordaindu behar dutenen eroldan sartu eta gero. Tasa horiek sei hileko lehen hileko 16a eta bigarren hileko 15a bitartean ordainduko dira.

KUDEAKETA

8. ARTIKULUA

Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Aginduaren 48. artikulua xedatutakoarekin bat etorritz, ordenantza honek araututako aprobetxamenduak direla eta kalteak eragiten bazaizkie bide publikoko zolari

ORDENANZA REGULADORA DEL PRECIO PÚBLICO POR OCUPACION DE TERRENOS DE USO PÚBLICO CON MERCANCIAS, MATERIALES DE CONSTRUCCIÓN, ESCOMBROS, VALLAS, PUNTALES, ANILLAS, ANDAMIOS Y OTRAS INSTALACIONES ANALOGAS.

DISPOSICIONES GENERALES

ARTÍCULO 1

Esta Junta Administrativa, de acuerdo con la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Álava, establece y exige el precio público a que se alude en el enunciado de la siguiente Ordenanza, con arreglo de la misma, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen las tarifas aplicables y las normas de aplicación de las mismas.

ARTÍCULO 2

La ordenanza se aplica en todo el término local.

HECHO IMPONIBLE

ARTÍCULO 3

Constituye el hecho imponible de este precio público la ocupación del dominio público por alguno de los conceptos enumerados en la tarifa recogida en el Anexo de la presente Ordenanza, la cual determina la obligación de contribuir.

SUJETO PASIVO

ARTÍCULO 4

Son sujetos pasivos las personas o entidades a cuyo favor se otorguen las licencias, o quienes se beneficien del aprovechamiento, si se procedió sin la oportuna autorización.

ARTÍCULO 5

No estarán obligados al pago de precios públicos a las Administraciones públicas por los aprovechamientos inherentes a los servicios públicos de comunicaciones que exploten directamente y por todos los que inmediatamente interesen a la seguridad ciudadana o a la defensa.

CUANTÍA

ARTÍCULO 6

El importe del precio será el que resulte según la Tarifa contenida en el Anexo, para cada tipo de utilización o aprovechamiento.

DEVENGO

ARTÍCULO 7

La obligación de pago de precio público regulado en esta Ordenanza nace:

Tratándose de concesiones de nuevos aprovechamientos en la vía pública, en el momento de solicitar la correspondiente licencia.

Tratándose de concesiones de aprovechamientos ya autorizados y prorrogados, el día primero de cada semestre natural.

El pago del precio público se realizará:

Tratándose de autorizaciones de nuevos aprovechamientos o aprovechamientos con duración limitada por ingreso directo en la depositaria local, o donde estableciese la Junta Administrativa, pero siempre antes de retirar la licencia.

Tratándose de autorizaciones ya concedidas y sin duración limitada, una vez incluidas en los correspondientes padrones o matrículas de este precio público, por semestres naturales en las oficinas de Recaudación local, desde el día 16 del primer mes del semestre hasta el día 15 del segundo

GESTIÓN

ARTÍCULO 8

De conformidad con lo prevenido en el artículo 48 de la Norma Foral Reguladora de las Haciendas Locales, cuando con ocasión de los aprovechamientos regulados en esta ordenanza se produjesen

edo instalazioei, baimenaren titularrek edo ordaintzera behartuta daudenek guttiz ordaindu beharko dituzte kalte horienatik egindako berreraikitze edo konpoketa gastuak, edo konpondu egin beharko dituzte kalte horiek. Edonola ere, egindako aprobetxamenduengatik eskubideak likidatu beharko dira.

Tarifaren araberako zenbatekoak eskatutako edo egindako aprobetxamenduko likidatuko dira, eta ezin izango dira gutxitu kasuan kasuko epigrafeetan adierazitako aldiaren arabera.

Ordenantza honek araututako aprobetxamenduen emakidarako interesa duen orok baimena eskatu beharko du aldez aurretik.

Aprobetxamenduaren iraupena zehatz-mehatz zehaztu ez bada, behin baimena lortuz gero, baimen hori luzatu egingo da, harik eta baja adierazpena aurkeztu arte.

Kasuan kasuko tarifaren epigrafean adierazitako aldiaren lehenengo egunaren hurrengotik aurrera eragingo ditu ondorioak baja aurkezteak. Edozein dela ere aurka emandako arrazola, baja ez baldin bada aurkezten, prezio publikoa ordaintzen jarraitu beharko da nahitaez.

ERANSKINA

EPIGRAFEA

LEHENENGO TARIFA: BIDE PUBLIKOA MERKANTZIEKIN OKUPATZEA *

Bide publikoa aldi batez okupatzea edo modu berezian erreserbatzea, hilabeteko eta m²-ko: 3,5 euro.

BIGARREN TARIFA: BIDE PUBLIKOA ERAIKUNTZAKO MATERIALEKIN OKUPATZEA

Obra hondakinez, eraikuntzako materialez, horiek jaso eta gordetzeko bagoiez eta antzeko beste aprobetxamenduez okupatzea bide publikoa edo erabilera publikoko lurak. Metro koadroko edo horren zatikiko, hilabetean: 3,5 euro.

HIRUGARREN TARIFA: HESIAK, EUSTOINAK, ASTOTXOAK, ALDAMIOAK ETA ABAR.

Hesiz eta itxitura kaxoiz, berdin dio obratarako izan ala ez, eta antzeko beste instalazio batzuez okupatzea bide publikoa. Metro koadroko edo horren zatikiko, hilabetean: 3,5 euro.

Eustoinez, astotxoiz, aldamiok eta antzeko beste elementuez okupatzea bide publikoa edo erabilera publikoko terrenoak. Metro koadroko edo horren zatikiko, hilabetean: 3,5 euro.

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

Justifikatutako arrazoirik gabe eteten badira obrak hamabi hilabete baino gehiago, bigarren tarifa aplikatu izangatik kopuruek ehuneko 100eko errenergua izango dute, hirugarren hilabetetik aurrera, eta baldin eta behin obrak bukatuta, aprobetxamenduekin jarraitzen bada, ehuneko 20eko errenergua izango dute zenbatekoek.

Hirugarren tarifa aplikatu izanagatik kopuruek errenergua hauek izango dituzte, instalatu edo emakida jaso eta hirugarren hilabetetik aurrera. Bigarren hilabetean ehuneko 25, hirugarren hilabetean ehuneko 50 eta hiruhilabeterik behin, hirugarrenetik aurrera, ehuneko 100.

desperfectos en el pavimento o instalaciones de la vía pública, los titulares de la licencia o los obligados al pago vendrán sujetos al reintegro total de los gastos de reconstrucción y reparación de tales defectos o reparar los daños causados, que serán en todo caso, independientes de los derechos liquidados por los aprovechamientos realizados.

Las cantidades exigibles con arreglo a la tarifa se liquidarán por cada aprovechamiento solicitado o realizado y serán irreducibles por los periodos naturales de tiempo señalados en los respectivos epígrafes.

Las personas interesadas en la concesión de aprovechamientos regulados en esta ordenanza deberán solicitar previamente la correspondiente licencia.

Si no se ha determinado con exactitud la duración del aprovechamiento, una vez autorizada la ocupación, se entenderá prorrogada mientras no se presente la declaración de baja.

La presentación de la baja surtirá efectos a partir del día primero del periodo natural de tiempo siguiente señalado en el epígrafe de la tarifa que corresponda, sea cual sea la causa que se alegue en contrario, la no presentación de la baja, determinará la obligación de continuar abonando el precio público.

ANEXO

EPIGRAFE

TARIFA PRIMERA: OCUPACIÓN DE LA VÍA PÚBLICA CON MERCANCIAS

Ocupación o reserva especial de la vía pública de modo transitorio, por mes y m²: 3,5 euros.

TARIFA SEGUNDA: OCUPACIÓN CON MATERIALES DE CONSTRUCCIÓN

Ocupación de la vía pública o terrenos de uso público, con escombros, materiales de construcción, vagones para recogida o depósito de los mismos y otros aprovechamientos análogos. Por m² o fracción al mes: 3,5 euros.

TARIFA TERCERA: VALLAS, PUNTALES, ANILLAS, ANDAMIOS, ETC.

Ocupación de la vía pública o terrenos de uso público con vallas, cajones de cerramientos, sean o no para obras y otras instalaciones análogas. Por m² o fracción al mes: 3,5 euros.

Ocupación de la vía pública o terrenos de uso público con puntales, anillas, andamios y otros elementos análogos. Por m² o fracción al mes 3,5 euros.

NORMAS DE APLICACIÓN DE LAS TARIFAS

Cuando las obras se interrumpiesen durante un tiempo superior a dos meses, sin causa justificada, las cuantías resultantes por aplicación de la tarifa segunda sufrirán un recargo del 100 por cien a partir del tercer mes, y, en caso, de que una vez finalizadas las obras continúen los aprovechamientos, las cuantías serán recargadas en un 20 por cien.

Las cuantías resultantes por aplicación de la tarifa tercera sufrirán los siguientes recargos a partir del tercer mes desde su instalación o concesión. Durante el segundo trimestre un 25 por ciento; durante el tercer trimestre un 50 por ciento y en cada trimestre, a partir del tercero, un 100 ciento.